

ELIAS OLAZAR MURUAGA

PASIOTARRA



Arrieta

Erri eder bat goratu nai dot
Arrieta dau izena,
Sollube mendi gallur gaiñetik
seme bikaiñen omena.
Kristau elizan, Euskal errian
izan dabe garaipena;
errien aide jokatutzea
jokabiderik onena.

Erri-txaloa irabaztea ez da gauza erreza. Ortarako biderik egokiena "errien aide jokatutzea". Giza- semeen baliotasuna ontzat eta aintzat artzen ondo baño obeto daki gure erriak. Gai ontan ez da oker eta zurikeriz ibilliko. "Ori da gizona", esan oi da gure artean. Egizko gizatasuna, arrokerian eta aundikerian barik, erriaren aide egiten diran on-egiñetan begiz jotzen da. Ez da, ba, arritzekoa onako gizonak Euskal errian ezezik, mundu zabalean be aintza ta omena irabaztea.

Arrieta erriak, gizaldi ontan, Euskal erriari, Elizari eta Peru laterriari, gizon ospetsu bat emon dautso: Gregorio Elias Olazar Muruaga, gotzaiña.

GORABIDEA

Ume baten jaiotz eguna, bai dala zoragarria! Zoragarriago, Egu-berrietan jaiotzea. Gregorio Olazar'en jaiotzak pozez eta zorionez bete eban bere sendia, Arrieta'ko baserri baten, Gabon aurregunean. (1912, abenduak 24).

Jaunaren deia eta gazte baten leia bat egitean, urregorrik etorkizuna zabaltzen da bizibidean. Gregorio mutikoa, Jaunaren deiak bultzaturik, Gabiria'ko Pasiotarren ikastetxera doakigu. Antxe jantziko dau bere burua irakaste zuzen eta argiak. Eliz-ikasteak amaiturik Deustu'n apaiztuko da. (1935)

Gaurdanik gora Elias aitak agirian ezarri bearke dau jatorriz dakarren ekarri ona eta joria. Emen asten da bere gorabidea. Erroma'n, Angelicum Ikastetxe Nagusian, egingo ditu Teologia goi-ikasteak. Ikasaldia amaiturik Erroma'ko gure etxean, eta geroago Deustu'n, Teologia jakintzan, berebiziko maixutasuna adierazoko dau. Emen izan neban nik bere ikasle izateko zoria eta zoriona.

Sasoi ontan sortu zan España'n Ikas-alkarte bat Andra

Maria'ri buruzko ikasteak egiteko burubideaz. Au poza, Elias'ena! Oraintxe bai aukerarik oberena Andra Maria'ri dautson maitasuna agertzeko. Idaz-lan jakintsuak argitaratu zituan aldizkarietan.

Pasiotarren ikastetxe guztien arduradun izentaturik, biotz beroz alegindu zan gazteen aziera eta ezi-arauak erabarrizteko. Berak erabagi eta eraginda sortu zan ikasleen arteko Horizontes aldizkaria.

Zazpi urteburuan Redencion aldizkariaren zuzendaria izan zan. Idazlari ona ta argia zan, benetan, eta erri-giroan azaldu ebazan erlijio-gaiak. Bere gorabideak ez dau etenik izango: Gure Probintziko gorengo aukietan konsultore izanik ikasgaiak eta beste goraberak zuzenbidetik eroan zituan.

Bere buruaren argitasuna, egitekoak ondo egiteko gaitasuna, eliz-arazoetan jokabide ezin ohea, eta... ara or ba, Gotzaiñ izateko eliz-deia.

AZIA EREIN

Berrogei urte bete-beteak ditu Elias aitak. Bere bizitzako sasoirik ederrena. Eliz-gizon zuzen eta prestua da. Yurimaguas Mixioetarako gotzain izendapena arturik, Begoña'ko santutegian artzen dau Elizaren eta Andra Maria'ren onespena. (1953, jorriaillak 12). Bere ikur itza, auxe: "Ara or zure Ama".

Amazonas aldeko baso zabaletara elduta, zer? Iratzaderrre'k, itxasoari begira: "Oi, itxaso zabalaren / zabalaren zabalera". Emen, Elias Gotzaiñak esan bearke dau: "Oi, baso zabalaren / zabalaren zabalera". Ba'da lurralde onetan zer ikusi eta zer ikasi. Zer egiñ? Orañi arteko liburuak aide batera itzirik, beste liburu baten murgildu bearke dau bere burua. Libururik ikasgarriena: erriaren izakera, bizikera, nekaldia ta gurutzea. Liburu ontan ikasgai onexek ikasiko ditu: "Ez dala egoki erriaren izakera, nortasuna eta oiturak ontzat ez artzea". "Siniskeria eta sinismen-eza ez dirala kentzen dotriña uler-gaitzakin, Kristo'ren maitasunaz eta Andra Maria'ren bi-tartez baño". "Kristo'ren izena ta Barri Ona erein bear dala biotz guztietan. Kristo bera da, izan be, azirik onena". Ortarako gogoz jokatuko dau, batez be, irrati bidez, Yurimaguas eta Lima uriburuan. Azi-ereile bikaiña izan zan Elias Gotzaiña. Uzta-aldia oparotsua izan dedilla.

Bere oroigarrikerik onena? "Kristo'ren eta erriaren aide jokatutzea, jokabiderik onena".

URIGUEN'TAR ZENON